

# Batxi 1

## **MODALITATEKOEN AZALPENA / INFORMACIÓN SOBRE ASIGNATURAS DE MODALIDAD**

### **GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK IBILBIDEA / ITINERARIO HUMANIDADES Y CCSS**

#### **Latina I / Latín I**

Ikasleek latinaren oinarriak eskuratzea lortu nahi da, gero eta testu konplexuagoak aztertu eta itzuli ahal izateko. Gainera, antzinako erromatar zibilizazioaren kultura ezagutuko dute, gure gizartearen testuingurua eta jatorria ulertzeko. Etorkizunean hizkuntzetako gradu bat ikasi nahi dutenei bideratuta dago.

*Se pretende que los alumnos/as adquieran las bases de la lengua latina con el objetivo de analizar y traducir textos cada vez más complejos. Conocerán la cultura de la antigua civilización Romana para entender el contexto y el origen de nuestra propia sociedad. Orientada principalmente para los alumnos/as que en el futuro pretendan cursar un grado relacionado con las lenguas.*

#### **Gizarte Zien. Aplik. Matematika I / Mate. Aplicadas a las CCSS**

Funtsezkoak dira goi-mailako ikasketetarako: ekonomia, enpresa, soziologia, administrazioa, magisteritza. Tresna zientifikoak eskaintzen dituzte lanak eta ikerketak egin ahal izateko eta informazioa arrazoitze eta laburtzeko trebetasunak garatzeko. Abantailak lortzen dira lan-merkatuan, ezagutza matematiko sendoak eskatzen baitituzte.

*Esenciales para estudios superiores: economía, empresa, sociología, administración, magisterio, proporcionando herramientas científicas para poder realizar trabajos e investigación y desarrollar habilidades para razonar, sintetizar y tomar decisiones. Se obtienen ventajas competitivas en el mercado laboral, que requieren conocimientos matemáticos sólidos.*

#### **Ekonomia / Economía**

Ikasleak oinarriko arazo ekonomikoak ezagutza zorrotzera hurbiltzea, horiek kritikoki aztertzeko tresnak emanez, erabaki ekonomikoek pertsonen bizi-kalitatean eta gizarte-ongizatean duten eragina ulertzen eta baloratzen lagunduz, eta portaera autonomoak eta arduratsuak sendotzen dituzten gaitasunak eta trebetasunak eskuratzeko aukera emanez.

*Acercar al alumnado al conocimiento de los problemas económicos básicos, proporcionándole herramientas para su análisis crítico, ayudándolo a comprender y valorar la incidencia que las decisiones económicas tienen en la calidad de vida de las personas y en el bienestar social, permitiéndole adquirir habilidades que consolidan comportamientos responsables.*

#### **Mundu Garaikideko Historia / Historia del Mundo Contemporáneo**

Gaur egungo mundua, haren ezaugarriak eta arazo nagusiak, mundu osoan gertatzen diren eta giza taldeen bizitza baldintzatzen duten fenomeno globalak ezagutzea ezinbesteko baldintza da inguruko errealitatean modu kontzientean kokatzeko eta horien aurrean zentzuzko erabaki pertsonalak hartzeko, bai eta etorkizuna eraikitzen modu aktibo eta arduratsu batean ere.

*Conocer el mundo actual, sus características, sus principales problemas y los fenómenos globales que se dan en todo el mundo y que condicionan la vida de los grupos humanos, es una condición indispensable para situarse de forma consciente en la realidad y tomar decisiones personales razonables ante ellos, de forma que contribuyan de forma responsable a la construcción del futuro.*

### **Literatura unibertsala (gazte-eus) / Literatura Universal**

Irakasgaiaren helburua da ikasleak literatura-ondare unibertsalaren adierazgarri diren zatiak edo obra osoak irakurtzea, pixkanaka bere nortasuna aberastu dadin, munduari buruzko ikuspegia zabalduz eta irakurtzeko ohiturak sustatuz.

*La asignatura pretende que el alumno realice la lectura de fragmentos u obras completas representativas del patrimonio literario universal permitiendo que poco a poco se enriquezca su personalidad mediante la ampliación de su visión del mundo y fomentando los hábitos de lectura.*

### **ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA IBILBIDEA / ITINERARIO CIENCIAS Y TECNOLOGIA**

#### **Biologia, Geologia eta Ingurumen-zientziak / Biología, Geología y Ciencias del medio.**

Ikasketa soziosanitarioetara eta zientifikoetara bideratutako irakasgaia da. Ikasleek metodo zientifikoaren oinarriak, geologiaren oinarritzko kontzeptuak, ingurumena zaintzearen garrantzia, baliabide naturalen aprobetxamendua eta landareak eta animaliak osatzen dituzten sistemen eta aparatuen egiturak eta dagozkien funtzioak ezagutu dituzte.

*Asignatura enfocada a estudios sociosanitarios y científicos. A través de ella los alumnos podrán conocer las bases del método científico, los conceptos básicos de la Geología, la importancia de la preservación del medio ambiente, el aprovechamiento de los recursos naturales y las estructuras y correspondientes funciones de los sistemas y aparatos que forman las plantas y animales.*

#### **Fisika eta Kimika / Física y Química**

DBHn bereganatutako jakintzetan sakonduko da, ikasleen oinarri kultural eta gaitasun zientifiko eta teknikoak aberastuz. Jorratuko diren hainbat gai hurrengoak dira: lotura kimikoa, materia, erreakzio kimikoak, kimika organikoa, higidura, indarrak eta energia.

*Se profundizará en los conocimientos adquiridos en la ESO, enriqueciendo la base cultural y las capacidades científicas y técnicas del alumnado. El enlace químico, la materia, las reacciones químicas, la química orgánica, el movimiento, las fuerzas y la energía son algunos de los temas que se abordarán.*

#### **Marrazketa Teknikoa I / Dibujo Técnico I**

Geometria lauari buruzko alderdiak eta irudikapen-sistemak ikasten dira eta baita hizkuntza hau unibertsal bihurtzen duen araudia ere. MT ideia edo proiektuen komunikazio grafikoaren oinarria da. Ikasketa hauetarako aproposa: arkitektura, diseinu grafiko edo industrial, matematika, ingeniarietza, zibila, elektronikoa...

*En dibujo técnico se enseñan aspectos relativos a la geometría plana y se estudian los sistemas de representación, así como la normativa que lo hace universal. El dibujo técnico es la base de la comunicación gráfica de ideas o proyectos. Óptimo para interesados/as en arquitectura, diseño gráfico o industrial, matemáticas y distintas ingenierías, civil, electrónica, etc.*

#### **Teknologia eta Ingeniaritza I / Tecnología e Ingeniería I**

Irakasgai honek, uztartuko ditu matematikak, fisika, zientzia, informatika...eguneroko arazo teknikoak irtenbidea emateko. Honela, ingeniarietza eta ikasketa teknikoak munduan sartuko gara.

*Esta asignatura involucra las matemáticas, física, ciencias, informática...para buscar soluciones a problemas técnicos de nuestro día a día. De esta manera, nos introducimos en el mundo de la ingeniería y los estudios técnicos*

## **HAUTAZKOEN AZALPENA / INFORMACIÓN SOBRE OPTATIVAS**

### **Algebra eta kalkulua / Álgebra y cálculo**

Matematika irakasgaiaren ezagutza indartzea eta karrera zientifiko eta sozialetarako funtsezko gaitasunak garatzea da helburua, baita curriculumaren eta ikasleak asimilatzen duenaren arteko desfasea arintzea ere. Tresna digitalen bidezko metodologia aktiboa erabiltzen da: GeoGebra, simulazio interaktiboak eta arrazoibidean oinarritutako problemak ebaztea.

*Reforzar el conocimiento de la asignatura de Matemáticas y desarrollar competencias claves para carreras científicas y sociales, así como paliar el desfase entre el curriculum y lo que el alumno asimila. Se utiliza una metodología activa con herramientas digitales: GeoGebra, simulaciones interactivas... y resolución de problemas basados en el razonamiento.*

### **Ahozko komunikazioa ingelesean / Comunicación oral en inglés**

Irakasgai honetan, ingelesezko ahozko komunikazioa hobetzeko tresna praktiko batzuk eman nahi zaizkie ikasleei. Ahoskera, komunikazio-trebetasunak, interakzioa edo soinuen ekoizpena bezalako alderdiak landuko dira. Helburuak hauek dira: ingelesezko komunikazioa hobetzea eta ikasleek komunikatzeko konfiantza hartzea hitz egiterakoan, atzerrian edo hemen bertan.

*En esta asignatura se pretende dar al alumnado unas serie de herramientas prácticas para la mejora de la comunicación oral en la lengua inglesa. La finalidad es perfeccionar la comunicación en inglés y que los alumnos ganen confianza a la hora de relacionarse en esta lengua, ya sea aquí o en el extranjero.*

### **Anatomia Aplikatua / Anatomía Aplicada**

Irakasgai hau, batez ere, ikasketak arlo soziosanitarioan egingo dituzten ikasleei zuzenduta dago. Biologiaren eta medikuntzaren adar bat da, eta giza gorputzaren egitura, espazioa eta kokapena aztertzen ditu. Giza gorputzaren organoak modu teorikoan eta praktikoan aztertuko ditugu: organoen disezioak, maketak egiten, laborategiko praktikak...

*Esta asignatura está dirigida principalmente al alumnado que vaya a realizar sus estudios por la rama socio-sanitaria. Se trata de una rama de la biología y la medicina que estudia la estructura, espacio y ubicación del cuerpo humano. Estudiaremos los órganos del cuerpo humano de forma teórica y práctica: disección de órganos, elaboración de maquetas, prácticas de laboratorio...*

### **Argazkigintza / Fotografía**

Argazkigintzarako sarrera egingo dugu: bere historia eta korrante artistikoak, argazkigintza-teknikako praktikak egingo ditugu eta argazki-edizio digitala landuko dugu.

*Introducción a la fotografía mediante el desarrollo de su historia y corrientes artísticas, prácticas de técnica fotográfica y edición digital.*

## **Atzerriko 2. Hizkuntza I: Alemana / 2ª Lengua Extr. I: Alemán**

Atzerriko bigarren hizkuntzaren irakasgaia eskaintzeak Batxilergoko funtsezko hainbat konpetentzia eskuratzen laguntzen du eta, zuzenean, ikasleen hizkuntza-konpetentziak, eleaniztunak eta kulturartekoak hobetzen, hizkuntzarekin, komunikazioarekin eta zentzu kritikoarekin lotutako gaitasunak garatzen lagunduz.

*La oferta de la materia de Segunda lengua extranjera contribuye a la adquisición de las distintas competencias clave de Bachillerato y, de forma directa a la mejora de las competencias lingüísticas, plurilingües e interculturales del alumnado, ayudando a desarrollar las capacidades vinculadas con el lenguaje.*

## **Euskal Herriko Historia / Historia de Euskal Herria**

Gure herriko prozesu ekonomikoak, politikoak eta kulturalak aztertu, gaur egungo egoerak hobeto ulertzeko.

*Analizar los procesos económicos, políticos y culturales de nuestro país para comprender mejor las situaciones actuales.*

## **Gizarte antropologia / Antropología Social**

Irakasgaia bi bloketan garatzen da: batetik, aniztasun kulturalari eta pertsona eta herrialde identitateari buruzko eduki teorikoa; bestetik landa-lanean oinarritutako ikerketa etnografiko bat gauzatzea.

*La materia se compone de dos bloques: por un lado, contenidos teóricos sobre la diversidad cultural y el desarrollo de la identidad de las personas y los pueblos; por otro, la realización de una investigación etnográfica con trabajo de campo.*

## **Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak I / Tecnologías de la Información y la Comunicación I**

Informatika erabiltzaile modura (Informatikaren oinarriak eta hardware, Office paketea, aurkezpen digital ezberdinak, bideo edizioa, Web edizioa, irudi edizioa, sistema eragileak, sareak eta Internet, eta APP inventor).

*Informática como usuario (Fundamentos de informática y hardware, paquete Office, presentaciones digitales, edición de vídeo, edición Web, edición de imágenes, sistemas operativos, redes e Internet, y APP Inventor).*

## **Kultura zientifikoa / Cultura Científica**

Gaur egungo gai zientifikoei buruz eztabaidatu eta hausnartuko da, gai horiek hainbat baliabiderekkin jorratuz (artikuluak, bideoak, aurkezpenak, infografiak, galdetegiak...) eta banaka nahiz taldeka lan egiten. Hurrengo gaiak landuko dira: Zer jaten dugu?, ingeniari-tza genetikoak, osasuna eta medikamentuak eta zientziaren erronkak eta etorkizunerako lehentasunak.

*Se debatirá y reflexionará sobre temas científicos actuales, abordando esos temas con diferentes recursos (artículos, vídeos, presentaciones, infografías, cuestionarios...) y trabajando tanto individualmente como en grupo. Se tratarán los siguientes temas: ¿Qué comemos?, ingeniería genética, salud y medicamentos, retos de la ciencia y prioridades para el futuro.*